Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala | Boletín Oficial de Gipuzkoa

2016ko otsailaren 5a, ostirala | 23 | Viernes, a 5 de febrero de 2016

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## USURBILGO UDALA

*2016ko ingurumen arloko egitasmoak burutzeko diru-laguntzak eskatzeko deialdia.*

Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko otsailaren 1eko bilkuran, besteren artean, 2016ko ingurumen arloko egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak onartzea erabaki zuen.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

*Errekurtsoak.*

— Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezake azaroaren 26ko 30/1992 eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeen arabera Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki hau argitaratu eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

— Bestela, erabaki hau berraztertzeko eskatu ordez, edo berraztertzeko errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsoa erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak sei hilabeteko epea izango du berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik kontatzen hasita administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko.

Ondorioz oinarrien testu osoa argitaratzen da eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta hogei laneguneko epea ematen da interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

Usurbilen, 2016ko otsailaren 1a.—Xabier Arregi Iparragirre, alkatea. (692)

*2016ko ingurumen arloko egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak.*

Usurbilgo Udalak, elkarte, erakunde eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten ingurumen ekimenak butzatu eta sustatzeko asmoz, 2016 urteko diru-laguntza deialdia arautuko duten oinarri hauek onartu ditu.

*1. artikulua. Xedea.*

Ebazpen honen xedea da Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen oinarri erregulatzaileak ezartzea, norgehiagoka erregimenean, ingurumen egitasmoak burutu dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsonei, beti ere aurretik udal diru laguntzarik jaso ez badute. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

## AYUNTAMIENTO DE USURBIL

*Convocatoria para solicitar subvenciones para desarrollar proyectos medio ambientales en 2016.*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Usurbil en sesión celebrada el 1 de febrero de 2016, aprobó las bases que regulan las subvenciones para desarrollar proyectos medio ambientales en 2016.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

*Recursos.*

— Antes acudir a la vía judicial, la persona interesada, si lo estima oportuno, podrá interponer contra este acuerdo el Recurso de Reposición correspondiente ante esta Junta Local de Gobierno, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la publicación de este acuerdo. Todo ello conforme a lo dispuesto en la Ley 30/1992 de 26 de noviembre y 4/1999 de 13 de enero.

— No obstante, alternativamente al recurso de reposición o en caso de oponerse al acuerdo de resolución del recurso de reposición, las personas interesadas podrán presentar directamente recurso contencioso-administrativo. El plazo para el mismo será de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación del acuerdo. En ese caso deberá recurrirse en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Gipuzkoa. Por otra parte, si la administración no resolviera el recurso de reposición, las personas interesadas podrán interponer el mencionado recurso contencioso-administrativo en el plazo de seis meses, a partir del día siguiente a aquel en que, de acuerdo con su normativa específica, se produzca el acto presunto.

Se adjunta el texto integro de las bases para su publicación y se concede un plazo de 20 días hábiles a contar desde el día siguiente a su publicación para que las personas interesadas presenten las solicitudes para la obtención de las ayudas económicas con toda la documentación necesaria.

Usurbil, a 1 de febrero de 2016.—El alcalde, Xabier Arregi Iparragirre. (692)

*Bases que regulan las subvenciones de proyectos medioambientales en 2016.*

Mediante la presente convocatoria el Ayuntamiento de Usurbil tiene por objeto fomentar y apoyar los proyectos Medioambientales que distintas asociaciones medioambientales, entidades o particulares organizan en el municipio y para ello, se establecen las bases de lla convocatoria del 2016 que regularán la concesión de subvenciones.

*Artículo 1. Objeto.*

Constituye el objeto de esta resolución el establecimiento de las bases reguladoras de la subvención que por parte del Ayuntamiento de Usurbil se concederá, en régimen de concurrencia competitiva, a entidades, públicas y privadas, y a particulares, y que no se hayan subvencionado previamente por parte del Ayuntamiento; ateniéndose en todo momento a lo establecido en el capítulo III del apartado I de la Ordenanza reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento Usurbil.

EK\CV GAO-I-2016-00692

Aintzat hartuko diren egitasmoak: 2015eko urtarrilaren 1etik deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunera arte garatutakoak.

Diruz lagunduko dena da ingurumen ekimenak garatzea, baldin eta Usurbilgo Udalak edo bere erakunde autonomoak egiten dituzten ekimenen osagarri badira edo ordezkatzen badituzte edo erabilera publikoko edo ingurumen-intereseko jarduerak badira eta, beti ere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzak kontuan izanda. Diruz laguntzen diren ekintzak irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizketarik egin gabe.

Ez dira aintzat hartuko beste udal partida edo deialdietatik diru-laguntza jasotzen duten ekintzak. Ezingo dute diru-laguntzarik jaso deialdi honen bidez bere izaera eta helburuak direla eta udalaren beste arlo edo erakunde autonomo batzuen beste programa baten edo batzuen bidez bideratu behar zirenak. Dena den, dagokion erakunde edo udal arloetara bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

*2. artikulua. Onuradunak.*

Diru-laguntza hauen subjektu onuradunak honako hauek izango dira: Usurbilen ingurumen ekimenak egiten dituzten pertsona juridiko zein fisikoak eta erakunde publikoak zein pribatuak, betiere, laguntza horien bidez erabilera publikoko edo ingurumen intereseko jardueraren bat gauzatzeko asmoa badute edota helburu publikoren bat lortzeko lanean badihardute. Usurbilgo udalerrian beren egoitza duten elkarteek diru-laguntzak lortu nahi badituzte, Elkarteen Udal-erregistroan inskribatuta egon behar dute.

Halaber, Usurbilgoak ez diren entitateek ere eska dezakete diru-laguntza, baldin eta, ingurumen ekimena Usurbilen burutzen badute, izena emanda badaude dagokien Elkarte Erregistroan eta Udalerrirako interesgarriak direla iritzitako ingurumen jarduerak baldin badira.

Edozein kasuan, ez zaie diru-laguntzarik emango kideak aukeratzeko prozesuan edo jardunean sexu-bereizkeria egiten duten elkarte edo erakundeei. Elkarte edo erakundeen estatutu edo funtzionamendu arauetan jaso beharko da kideak aukeratzeko prozesuan eta jardunean ez dela inor deusengatik baztertzen, eta, bereziki, ez dela sexuarengatik baztertzen. Beraz elkarte edo erakundeak sexuaren ziozko bereizkeria ezaren konpromiso aktiboa bere estatutu edo funtzionamendu arauetan jaso beharko du diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko momenturako.

Salbuespenez, eta Udal Ordenantzaren 5. artikuluko 4. atalak eta 6. artikuluko 7. atalak zehazten duten diru-laguntza eskabideak 3.000 eurotik beherakoak izanez gero, onuradun izaera izan dezakete pertsona fisiko edo juridikoen taldeek, publikoak edo pribatuak, ondasun erkidegoek edo unitate ekonomikoa edo ondare bereizia den beste edozein mota, nahiz eta nortasun juridikorik ez izan, udal laguntza edo diru-laguntza lor dezaketen proiektuak edo jarduerak egin nahi dituztenean, beti ere proiektuan sexu-bereizkeria ez bada ematen.

Merkatal enpresak deialdi honetatik kanpo geratuko dira nahiz eta euren jarduerak zerikusia izan ingurumen arloarekin.

Onuradunek beti ere, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluak ezartzen dituen betebehar guztiak bete beharko dituzte.

*3. artikulua. Eskariak aurkezteko gutxieneko baldintzak, lekua eta dokumentazioa.*

Deialdira aurkezteko unean eskatzaileak ez du zorrik izango Usurbilgo Udalarekin, nahiz eta honi dagokionez, ez den egiaz-

Actividades que se tendrán en consideración: aquellas desarrolladas desde el 1 de enero del 2015 hasta la publicación el Boletin Oficial de Gipuzkoa de la presente convocatoria.

Será subvencionable el desarrollo de las iniciativas Medioambientales, que siendo complementarias o sustitutivas a las iniciativas que lleva a cabo el Ayuntamiento de Usurbil, conlleven una finalidad de utilidad pública o interés ambiental y cumplan las condiciones que se establecen en la presente convocatoria. Las actividades subvencionadas estarán abiertas a la participación de cualquier ciudadano sin ningún tipo de distinción.

No se contemplarán las iniciativas que estén subvencionadas por vía de otras partidas o convocatorias municipales. Las iniciativas que debido su carácter o finalidad les corresponda la inclusión en otros programas de alguna otra sección municipal, u organismo autónomo, tampoco podrán recibir la subvención por medio de esta convocatoria. En ese caso, las solicitudes se trasladarían a la entidad o sección municipal pertinente, dando cuenta de ello a la persona interesada.

*Artículo 2. Personas o entidades beneficiarias.*

Podrán ser personas o entidades beneficiarias de la subvención toda persona, jurídica o física, y entidad tanto pública como privada que lleven a cabo actividades medioambientales en el municipio de Usurbil, que tenga como finalidad destinar la subvención concedida a la realización de actividades de utilidad pública o interés ambiental, o en todo caso, que se dedique a alcanzar objetivos de carácter social. Las asociaciones que tengan fijada su residencia en Usurbil, si quieren optar por la subvención, deberán estar inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones.

Asimismo, también podrán optar por la subvención las entidades que no pertenezcan a Usurbil pero que realicen actividades medioambientales en esta localidad, siempre y cuando estén debidamente inscritas en el Registro de Asociaciones que les corresponda, y planteen actividades medioambientales consideradas de interés para el municipio de Usurbil.

En cualquier caso, no se concederá ningún tipo de ayuda o subvención a ninguna asociación o entidad que discrimine por razón de sexo en su proceso de admisión o en su funcionamiento. Este aspecto deberá de estar contemplado en los reglamentos de funcionamiento o estatutos de las asociaciones o entidades, es decir, en el proceso de admisión o funcionamiento no habrá discriminación por razón de sexo. Por consiguiente, las asociaciones o entidades, deberán de presentar en el momento de la justificación de la ayuda económica el compromiso activo sobre la no discriminación por razón de sexo, y ello se contemplará en los reglamentos de funcionamiento o estatutos de la entidad.

Excepcionalmente, y de conformidad con lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 5.º y el apartado 7 del artículo 6.º de las Ordenanzas Municipales, siempre y cuando la cuantía de la subvención no supere los 3.000 euros, podrán acceder a la condición de entidad beneficiaria las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado que, a pesar de no tener personalidad jurídica, vayan a llevar a cabo proyectos o actividades susceptibles de recibir ayuda o subvención municipal, siempre que el proyecto garantice la no discriminación por razón de sexo.

Las empresas comerciales quedan excluidas de esta convocatoria aunque su actividad se desarrolle en el ámbito medioambiental.

Las personas o entidades beneficiarias deberán cumplir todos las obligaciones establecidas en el artículo 14 de la Ley General 38/2003, sobre las Subvenciones.

*Artículo 3. Lugar y condiciones mínimas para presentar las solicitudes y la documentación.*

El solicitante en el momento de presentar la solicitud no tendrá deudas con el Ayuntamiento de Usurbil, a pesar de que no

tagiririk aurkeztu behar. Bestalde, diru-laguntza ordaintzeko unean Udalarekin zorra izanez gero, ez da diru-laguntzarik emango.

Aurreko urteetako diru-laguntzaren bat zuritu gabe dagoen kasuetan, ez da diru-laguntza eskaera berririk onartuko.

Eskariak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskari-orrietan. Halaber, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluak aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Diru-laguntza eskaera egiteko, dokumentazio hau ekarri behar da Udalera:

— Diru-laguntza eskari normalizatua (I. Eranskina).

— Ekintzei buruzko fitxak (II. Eranskina).

II. eranskinean izandako diru-gastuak kontzeptuka azaldu behar dira. Udalaren esku geratzen da ekintza baten kontzeptu batzuk(funtzionamendu gastuak) diru-laguntza gai bezala onartu edo ez onartzea.

II. eranskinean ekintza bakoitzari dagozkion diru-sarrerak adieraziko dira.Diru sarrerak edo bestelako dirulaguntzak jaso badira, horiek ere azaldu beharko dira. Eta Udalak diru sarrerak aurreikusi beharko liratekeela baderitzo, dirulaguntza ematerako orduan aintzat hartuko du.

— Eskatzailearen NANaren fotokopia.

— Identifikazio Fiskalaren Kodearen kopia (edo NANaren kopia, hala badagokio).

— Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera egotearen eta Ogasuneko betebeharrak betetzearen agiria. (III. Eranskina).

— Elkarteak ez duela bazterketarik egiten adierazten duen agiria. (IV. Eranskina).

— Elkarteak emakume eta gizonen berdintasunerako legedia betetzen duela agiria. (V. Eranskina).

Edozein kasutan, ekimenari dagokion dokumentazioaz gain, entitate eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal izango zaie aurkeztutako ekimena behar bezala baloratu ahal izateko.

*4. artikulua. Epeak.*

Eskariak, diru-laguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogei eguneko epean aurkeztu beharko dira, biharamunetik kontatzen hasita. Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, halaber, hala egiten ez badu, bere eskaria ez dela kontuan hartuko eta, hala ebatziko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 42. artikuluak aurreikusten dituen terminoen arabera.

*5. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa.*

Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidan azaltzen den diru izendapena.

Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da. 1.6100.480.172.00.01 Dirulaguntza irekiak.

Araudi honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin. Edozein modutan, ez da gainfinantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, dirulaguntza murriztu egingo da.

Erakunde edo elkarte bakoitzari zenbateko diru-laguntza emango zaion ezartzeko, honako hau kontutan hartuko da:

deberá presentar ninguna justificación al respecto. En aquellos casos en los que haya deudas para con el Ayuntamiento, no se concederá ninguna subvención.

En aquellos casos en los que no se haya liquidado la subvención correspondiente al año anterior, no se aceptará ninguna nueva solicitud de subvención.

Las solicitudes se deberán presentar en el Registro General del Ayuntamiento de Usurbil o en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, del 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en los impresos que a tal efecto dispondrá el Ayuntamiento.

Para solicitar la subvención se deberá presentar en el Ayuntamiento la siguiente documentación:

— Impreso de solicitud normalizado (Anexo I).

— Fichas sobre las actividades (Anexo II).

En el anexo II se reflejará el concepto de los gastos realizados. Será el Ayuntamiento quién decida la aprobación o no de algunos conceptos de actividades subvencionables (gastos de funcionamiento).

En el anexo II se reflejarán los ingresos correspondientes a cada actividad. Si hubiera ingresos u otras subvenciones también se reflejarán. Y si el Ayuntamiento considera que se tendrían que haber previsto, así lo podrá estimar.

— Fotocopia del DNI de la persona solicitante.

— Fotocopia del Código de Identificación Fiscal (o en su defecto, fotocopia del DNI).

— Documento justificativo de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y las referidas a la Seguridad Social (Anexo III).

— Documento que justifique la no discriminación por parte de la asociación (Anexo IV).

— Documento justificativo de cumplir con la normativa sobre igualdad entre mujeres y hombres. (Anexo V).

Además de la documentación referida a la iniciativa, se podrá requerir a la entidad solicitante que facilite la información complementaria que se estime oportuna para valorar adecuadamente la iniciativa en cuestión.

*Artículo 4. Plazos.*

Las solicitudes se deberán presentar en el plazo de veinte días contados a partir del día siguiente a la fecha de la publicación de la presente convocatoria en el Boletin Oficial de Gipuzkoa. Cuando se observe que la documentación presentada es incompleta o no reúne los requisitos exigidos en las presentes bases, se requerirá a la persona interesada para que en un plazo de diez días hábiles subsane los defectos o agregue la documentación preceptiva, con indicación de que si así no lo hiciera, no se tomará en consideración su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992 del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 5. Cuantía de la subvención.*

La cuantía destinada a la subvención no superará las cantidades especificadas en la partida que se indica a continuación.

El gasto irá a cargo de la siguiente partida: 1.6100.480. 172.00.01 Subvenciones abiertas.

Las subvenciones reconocidas por la presente Formativa serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por Organismos Públicos o Privados para el mismo objeto, sin que en ningún caso pueda existir sobre financiación, procediendo en tal caso la reducción de la subvención a conceder.

Las subvenciones que se conceden a las entidades o asociaciones se establecerán en base a los siguientes criterios:


EK\CV GAO-I-2016-00692

— Udalaren aurrekontuan xede horretarako aurrikusitako zenbatekoa.

— Aurkeztutako ekintzen kopurua eta nolakotasuna.

Lagundutako kostuaren ehunekoa:

Gehienez ere, udalak emandako diru-laguntza ekintzaren kostu osoaren %95ekoa izango da, ondoko salbuespenekin:

— Egitasmoa Usurbilera mugatzen bada eta beste inolako diru-sarrerarik ezin bada aurreikusi %100 diru-laguntza eman ahal izango da, salbuespen gisa.

— Ikastaroak: Ikastaroak antolatzen direnean, gehienez ere, kostuaren %60a lagunduko dira diruz. Ikastaroko partehartzaile bakoitzeko udalak emango duen gehienezko diru-kopurua 100 eurokoa izango da.

— Irteerak antolatzeko diru-laguntza, gehienez ere, udalari eskatutako diru-laguntza kostu osoaren %10ekoa izango da.

Eskatzaile bakoitzeko gehieneko dirulaguntza 2.000 €-takoa izango da kasu guztietan (ekintza guztiak batuta).

*6. artikulua. Prozedura.*

Ingurumen arloko teknikariak diru-laguntza eskariak ebaluatu ondoren, txostena egin eta Nekazaritza eta Ingurumen Batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman dezan. Ondoren, Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak ebazpen proposamena egingo du. Jarraian, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da ebazpen proposamenaren inguruko iragarkia eta interesatuak 10 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita. Azkenik, Tokiko Gobernu Batzarrak emango du diru-laguntzei buruzko behin betiko ebazpena eta ondoren Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA-n argitaratuko da. Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

*7. artikulua. Diru-laguntzen Batzorde Orokorra.*

Diru-laguntzen Batzorde Orokorra modu honetara osatuko da:

— Alkatea.

— Udalean diru-laguntzak banatzen dituen batzorde bakoitzeko lehendakaria eta teknikaria.

— Udal idazkaria.

— Udal kontuhartzailea.

Diru-laguntza Batzorde Orokorraren funtzioak, besteak beste, hauek izango dira:

— Udal diru-laguntzak banatzeko irizpideak bateratzea.

— Diru-laguntzen legezkotasuna bermatzea.

— Diru-laguntza bikoizketak ekiditea.

*8. artikulua. Baloratzeko irizpideak.*

Ondokoak izango dira lehentasuna izango dituzten ekintzak:

— Energiaren kontsumoa murrizteko egindako inbertsioak.

— Usurbilgo Energia Jasangarrirako Ekintza Planaren helburuekin bat datozen ekintzak, bereziki plan horretan proposatutako ekintzak betetzeko ihardueak.

— Usurbil herrian energia ez berriztagarriaren kontsumoa energia berriztagarriaren kontsumoarekin ordezkatzeko ekintzak.

— Usurbil herrian energia nuklearra ez kontsumitzeko lagunduko duten ekintzak.

— Hondakinen sorrera murrizteko eta sortzen diren hondakinen birziklapena bultzatzeko ekintzak.

Horrelako egitasmoak laguntzeko esleipena eta gero,dirua geratuko balitz, ondoko beste ekintzak izango dute lehentasuna:

— La cantidad de dinero establecida para tal fin en el presupuesto municipal.

— Cantidad y características de las actividades presentadas.

El tanto por ciento del costo subvencionado:

Se concederá, como máximo, una subvención del 95% de la ayuda total de la actividad concedida por el Ayuntamiento.

— Si la actividad se delimita al municipio de Usurbil y si no se prevé la obtención de ningún otro ingreso, se concederá una subvención del 100%, a modo de excepción.

— Cursillos: Se concederá, como máximo, una subvención del 60% de la ayuda solicitada al Ayuntamiento para impartición de cursos. La cuantía de la subvención no superará la cantidad de 100 euros por participantes.

— Se concederá, como máximo, una subvención del 10% de la ayuda solicitada al Ayuntamiento para organizar salidas.

La cuantía total por solicitante no podrá exceder de 2.000 € (sumando todas las actividades).

*Artículo 6. Procedimiento.*

El personal técnico del área Medioambiental evaluará las solicitudes de subvención y se encargará de realizar un informe que se trasladará a la Comisión de Agricultura y medio ambiente. Una vez analizado el informe, se hará una valoración, tras la cual, la Comisión General de Subvenciones dictará una propuesta de resolución y a continuación, se publicará en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa el anuncio relativo a la propuesta de resolución y la persona interesada tendrá un plazo de 10 días a contar desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa para presentar las alegaciones oportunas. Finalmente, en Junta de Gobierno Local se dictará la resolución definitiva relativa a dichas subvenciones, y a continuación se publicará en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa. En el tablón de anuncios del ayuntamiento y en la página web www.usurbil.eus también se dará cuenta de la propuesta provisional y de la resolución definitiva.

*Artículo 7. Comisión General de Subvenciones.*

La Comisión General de Subvenciones está compuesta por:

— El Alcalde.

— La Presidenta y la técnica de la comisión que concede las subvenciones.

— La Secretaria Municipal.

— El Interventor Municipal.

Las funciones de la Comisión General de Subvenciones son las siguientes:

— Unificar los criterios para la concesión de subvenciones municipales.

— Garantizar la legalidad de las subvenciones.

— Evitar duplicidades en la subvención.

*Artículo 8. Criterios de valoración.*

Tendrán prioridad las siguientes actividades:

— Inversiones realizadas para reducir el consumo de energía.

— Actuaciones acordes con los objetivos establecidos en el Plan de Acción para la Energía Sostenible de Usurbil, y en concreto, las actuaciones previstas en dicho plan.

— Actuaciones orientadas a sustituir el consumo de energía no renovable por energías renovables.

— Actuaciones orientadas a disminuir el consumo de energía nuclear.

— Actuaciones que impulsen la prevención y reciclado de residuos.

Una vez subvencionados este tipo de actuaciones, si hubiera cuantía económica suficente, también tendrán prioridad las siguientes actuaciones.

EK\CV GAO-I-2016-00692

— Usurbilgo ondare naturala ezagutzeko eta babesteko ekintzak.

— Baliabideen kontsumoa murrizteko ekintzak.

— Usurbilgo airearen kalitatea hobetzeko ekintzak.

Nolanahi ere, aurreko irizpideetan aurreikusi ez diren bestelako herri intereseko irizpideak kontuan hartzeko aukera izango du Nekazaritza eta Ingurumeneko Batzordeak.

2005eko Gizonen eta Emakumeen Arteko Berdintasunerako Legea aintzakotzat hartuta, diru-laguntzak ematerakoan baloratuko da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde zer konpromiso maila duten taldeek, bai zuzendaritzari begira, bai egiteko asmoa duten jarduerei begira.

*9. artikulua. Diru-laguntza ordaintzea.*

Diru-laguntza eman dela jakinarazi bezain laster, diru-laguntzaren %75a ordainduko da, eta honetarako ez zaie inongo bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako %25a, eskaera egiteko aurkeztu zen aurrekontu osoari dagokion gastua, eta ez dirulaguntzaz ordaindutakoari bakarrik, justifikatu ondoren ordainduko da. Eta kontuan izango dira, halaber, Ordenantzaren 12. artikuluan aipatzen diren aspektu guztiak. Bigarren zatiaren ordainketaren inguruko akordioa beranduenez jota 2017ko urtarrileko azkeneko Tokiko Gobernu Batzarrak onartu beharko du.

*10. artikulua. Betebeharrak.*

Deialdi honetako diru-laguntzak jaso dituzten entitate onuradunek, Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikuluak ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte. Besteak beste, ondorengo hauek:

a) Diru-laguntza emateko eskatzen den jarduera gauzatua izatea.

b) Jarduera egin dela frogatzea. Orobat, laguntza emateko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.

c) Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak izatea, eta horietan ezarritakoa betetzea.

d) Diru-laguntza eskaini duen Usurbilgo Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta esku-hartzailetzari dagozkion finantza-kontroleko jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.

e) Beste administrazio edo erakunde batzuetatik –publiko nahiz pribatuetatik, estatuko nahiz nazioartekoetatik– helburu berbererako beste diru-laguntzarik jasotzen bada, diru-laguntza eskaini duen organoari horren berri ematea.

f) Indarrean dauden xedapenen arabera Gizarte Segurantzaren eta Ogasun Publikoaren aurrean dituzten betebeharrak ezagutzea –Usurbilgo Udalak ezarritakoak barne.

Horretarako, eskatzaileek idatzizko aitorpenean adieraziko dute Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera dagoela edo Ogasun Arloko betebeharrak betetzen dituela.

g) Diruz lagundutako ekintzek herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dituzte. Era berean diruz lagundutako jarduerak aintzakotzat hartuko ditu Euskararen Udal Ordenantza, Usurbilgo Udalaren Euskararen Erabilera Plana, UEMAren hizkuntza irizpideak, gainerako araudia eta Usurbilgo herriaren errealitate soziolinguistikoa.

h) Diruz lagundutako jardueretan eta jardueren iragarpenean hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da, Pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen

— Actuaciones orientadas a profundizar o conservar el patrimonio natural de Usurbil.

— Actuaciones orientadas a reducir el consumo de recursos.

— Actuaciones orientadas a la mejora de la calidad del aire de Usurbil.

De todos modos, cabe la posibilidad de tener en cuenta otros criterios que la Comisión de Agricultura y Medio Ambientes considere de interés del municipio.

A la hora de adjudicar subvenciones a las asociaciones, se tendrá en cuenta el compromiso de estas con la igualdad de mujeres y hombres, tanto en lo referente a la composición de sus órganos directivos como en relación a las actividades que pretendan desarrollar, teniendo siempre en cuenta la Ley de 2005 sobre la Igualdad de Mujeres y Hombres.

*Artículo 9. Pago de la subvención.*

Inmediatamente a la notificación de la concesión de la subvención, se procederá a tramitar el pago del 75% de la ayuda, no exigiéndose para ello garantía alguna a las personas o entidades beneficiarias. El 25% restante se pagará previa justificación de la aplicación no solo de la ayuda recibida, sino del gasto correspondiente a la totalidad del presupuesto presentado en la solicitud. Así mismo, se tendrán en cuenta todos los aspectos recogidos en el artículo 12 de la ordenanza. El acuerdo relativo al pago de la segunda parte se adoptará como muy tarde por la Última Junta de Gobierno Local de enero de 2017.

*Artículo 10. Obligaciones.*

Las entidades que se han beneficiado de las subvenciones contempladas en la presente convocatoria, deberán cumplir todas las obligaciones que se establecen en el artículo 6 de la Ordenanza reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento de Usurbil, entre las que se encuentran las siguientes:

a) Haber realizado la actividad requerida para la concesión de la ayuda.

b) Acreditar la realización de la actividad y, en definitiva, el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinan la concesión de la ayuda.

c) Disponer de las necesarias para la realización de la actividad subvencionada y cumplir lo que en ellas se dispone.

d) El sometimiento a las actuaciones de comprobación a efectuar por el Ayuntamiento de Usurbil y a las de control financiero que corresponden a la Intervención y a las previstas en la legislación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas u otros órganos que tengan atribuidas dicha competencia.

e) Comunicar a la entidad concedente la obtención de otra u otras subvenciones, para la misma finalidad procedentes de otra Administración o Ente Público estatal o internacional.

f) Tener conocimiento de sus obligaciones tributarias y de la Seguridad Social, según lo establecido en las disposiciones vigentes, en las que se incluyen las establecidas por el Ayuntamiento de Usurbil.

Para ello, las personas o entidades solicitantes deberán presentar declaración escrita de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con relación a la Seguridad Social y en el cumplimientos de todas sus obligaciones tributarias.

g) Las actividades subvencionadas garantizarán los derechos lingüísticos de los ciudadanos. Asimismo, el desarrollo de la actividad subvencionada tendrá en consideración la ordenanza muncipal del Euskera, el Plan de Uso del euskera del Ayuntamiento de Usurbil, los criterios linguísticos de UEMA, el resto de la normativa y la realidad sociolinguística del municipio de Usurbil.

h) Se garantizará la incorporación de imágenes no sexistas en las actividades subvencionadas y en la publicidad de las mismas. En la visualización de las personas no se reproducirán

EK\CV GAO-I-2016-00692

presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan islatu behar da, 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak agintzen duen modura.

i) Diru-laguntza gai diren ekintzak bideratzerakoan, hondakinei dagokienez Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak beteko dira.

*11. artikulua. Diru-laguntza justifikatzea.*

Diru-laguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

a) Egindako jarduerararen memoria (II. Eranskinaren araberakoa), ahalik eta zehatzena. Bertan, diru-sarrerak eta gastuak erantsiko dira.

b) Gastuaren egiaztagiri originalak edo fotokopia konpultsatuak.

Egiaztagiri hauek, ezinbestez, diru-laguntza eman zeneko helburu eta ekintzei dagozkien gastuei buruzkoak beharko dira izan. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztagiriak.

Fakturetan hauxe agertuko da:

— Erakundearen edo/eta elkartearen identifikazioa.

— Hornitzailearen identifikazioa.

— Fakturaren data.

— Jarduera.

— Zerbitzuaren deskripzioa.

Diru-laguntzaren bidez egiten den jarduera antolatzeagatik ez da diru-saririk jasoko.

c) Ekintzari buruzko lau argazki, paperean eta formatu digitalean. Argazki hauek udalak herri intereseko helburuetarako erabili ahal izango ditu.

d) Diru-sarreren egiaztagiri originalak edo fotokopia konpultsatuak.

e) Justifikazioari honakoak erantsi beharko zaizkio: Azterketa, programa, publikazio eta horma-irudi iragarleen bi ale.

f) Diru-laguntza ekintzaka zurituko da.

g) Diru-laguntza zuritzeko azken eguna, dirulaguntza eman dela argitaratu eta 3 hilabetetara izango da.

*12. artikulua. Dirua itzultzea.*

a) Deialdi honetako 10. artikuluaren b) paragrafoak ezartzen duena betez, diru-laguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, diru-laguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitu Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 15. artikuluak eta, beti ere, Ordenantza bereko 16. artikuluak arautzen duen prozedura jarraituz.

b) Udalak atzematen badu eskatzaileak sexuaren ziozko bereizkeria egiten duela, diru-laguntza berdintasun legedia betetzearen arabera baldintzatua geratuko da eta, ondorioz, emandako dirua bere osotasunean itzultzeko ere eskatu ahal izango da.

c) Diru-laguntza eman ondoren gainfinantzaketa gertatuko balitz, eta dirua itzultzeko beharrizanen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Usurbilgo Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

estereotipos sexistas y se impulsará una presencia equilibrada de mujeres y hombres, tal y como establece la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

i) A la hora de tramitar las actividades objeto de subvenciones, con relación a los residuos se deberá de cumplimentar el protocolo establecido por el Ayuntamiento y las Ordenanzas municipales de Usurbil sobre recogida y tratamiento de residuos urbanos.

*Artículo 11. Justificación de la subvención.*

Para la justificación de la ayuda concedida, la entidad o persona beneficiaria deberá presentar la documentación que se indica a continuación.

a) Memoria de la actividad realizada, lo más detallada posible y con la relación final de ingresos y gastos (según el modelo propuesto en el Anexo II).

b) Justificantes originales del gasto o fotocopias compulsadas.

Los justificantes deberán corresponder necesaria y exclusivamente a los gastos ocasionados con el cumplimiento de los fines y actividades para los que se concedió la subvención; no pudiendo admitirse como justificación los gastos realizados con otro objeto.

En las facturas se indicará lo siguiente:

— Identificación de la entidad o asociación.

— Identificación de la entidad proveedora.

— Fecha de la factura.

— Actividad que origina el servicio.

— Descripción del servicio.

No se admitirá la renumeración económica por la labor de organización de la actividad.

c) Con relación a la actividad, se deberá de presentar 4 fotografías en papel y formato digital (El Ayuntamiento podrá hacer uso de estas fotografías para fines sociales.).

d) Justificantes originales o fotocopias compulsadas de los ingresos percibidos.

e) Para la justificación se deberá aportar dos ejemplares de los estudios, programas, publicaciones y carteles anunciantes de la actividad.

f) La subvención se justificará desglosada por cada una de las actividades.

g) El plazo para la liquidación de la ayuda concedida finalizará a los 3 meses desde que se publique la concesión de la subvencíón.

*Artículo 12. Reintegro.*

a)Procederá el reintegro total o parcial de la ayuda y del interés de demora correspondiente, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 15 de la Ordenanza Reguladora de Subvenciones vigente en el Ayuntamiento de Usurbil y siguiendo el procedimiento que regula el artículo 16, cuando no se justifique la realización del gasto equivalente al presupuesto de gasto de la actividad que sirvió de base para la concesión de la subvención, tal y como indica el artículo 10 párrafo b) de esta convocatoria.

b) Si el Ayuntamiento observa que la asociación o entidad causa discriminación por razón de sexo, la subvención quedará condicionada al cumplimiento de la ley de igualdad, y, en consecuencia, se solicitará devolver la totalidad de la subvención concedida.

c) En caso de que con posterioridad se generase una sobre financiación y concurriese más de una obligación de reintegro por esa causa, la persona o entidad beneficiaria reintegrará la cantidad proporcional que le corresponda en función de la aportación sobre el total que haya efectuado el Ayuntamiento de Usurbil.

d) Aurrekontuan zehaztutako gastua baino txikiagoa egiten bada, dirulaguntzaren kopuru proportzionala itzuli egin beharko da.

*13. artikulua. Erabiltzeko eskubidea.*

Usurbilgo Udalak lagundutako egitasmoetan sortutako agiriak, baliabideak, tresnak, eta, orokorrean, ondareak, bai fisikoak baita euskarri informatikoan ere, udalak berak edo udalak emandako baimenarekin beste norbaitek erabiltzea izango du, beti ere herri intereserako erabilera baldin bada.

*14. artikulua. Araudi osagarria.*

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.

d) Si el gasto real es inferior al presupuesto presentado o si no se realiza la actividad, deberá de devolver la diferencia.

*Artículo 13. Derecho al uso.*

Con relación a los soportes (en papel o digital, así como los bienes tanto físicos como digitales) surgidos de los programas subvencionados por el Ayuntamiento de Usurbil, el Ayuntamiento podrá hacer uso de los mismos o conceder autorización a terceros, siempre que sea para fines sociales.

*Artículo 14. Normativa completiva.*

En lo no dispuesto en esta convocatoria se estará a la regulación contenida en la Ordenanza reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento de Usurbil y a lo dispuesto en la Ley 38/2003 reguladora de Subvenciones de la Administración Pública.

EK\CV GAO-I-2016-00692

Usurbilgo Udala

EUSKAL HERRIA

# DIRU-LAGUNTZA ESKAERA EGITEKO AURKEZTEN DITUGUN AGIRIAK

Hona hemen aurkezten ditugun agiriak (gurutze batez markatu):

- ☐ Taldeari edo norbanakoari buruzko datuak(I. Eranskina)
- ☐ Ekintzei buruzko fitxak beteta, diru sarrerak eta gastuak (originalak edo fotokopia konpultsatuak) erantsita adierazten direla. (II. Eranskina)
- ☐ Elkartea Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan eta Gizarte Ogasuneko betebeharretan egunera egotearen egiaztagiria. (III. Eranskina)
- ☐ Elkarteak ez duela bazterketarik egiten adierazten duen agiria. (IV. Eranskina)
- ☐ Elkarteak emakume eta gizonen berdintasunerako legedia betetzen duela agiria. (V. Eranskina)
- ☐ Bestelako diru-laguntzei buruzko egiaztagiri originala edo fotokopia konpultsatuak.
- ☐ Azterketa, programa, publikazio eta horma-irudi iragarleen bi ale.
- ☐ Ekintzari buruzko argazkiak.
- ☐ Identifikazio Fiskaleko kodearen fotokopia
- ☐ Nortasun agiriaren fotokopia
- ☐ Besterik: Zehaztu:

Usurbilen, 2016ko _____________en ____an

Sinadura

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.net 1 / 7

EK\CV GAO-I-2016-00692

Usurbilgo Udala

EUSKAL HERRIA

# I. Eranskina

| DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO ORRIA<br>TALDEARI edo NORBANAKOARI BURUZKO DATUAK | 2016 |
|---|---|

## A) ELKARTEARI BURUZKO DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| Entitate eskatzailea: | Erregistro zk.: | |
| Entitatearen helbidea: | | |
| Herria: | | PK: |
| Telefonoa: | E-maila: | IFK: |
| Faxa: | | |

## B) ARDURADUNARI BURUZKO DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| Izen-abizenak: | Ardura: | |
| Helbidea: | | PK: |
| Telefonoa: | Faxa: | E-maila: |

## B) KONTU KORRONTEARI BURUZKO DATUAK

| | |
|---|---|
| Banketxea: | Sukurtsala: |
| Sukurtsalaren helbidea: | Herria: |
| K/k zk. (20 digitu): | |

## C) TALDEARI BURUZKO DATUAK

| | |
|---|---|
| Noiz sortutako taldea den: | |
| Urtean zehar zenbat ekintza antolatzen dituen: | |
| Gaur egungo taldekide kopurua: | |
| Herriko beste talderen batekin elkarlanean zerbait antolatzen al duzue? | Zer? |

## D) EKINTZAK

Elkarteak 2015tik deialdia argitaratu bitartean egin duen ekintzaren deskribapena
(Ondoren, ekintza bakoitzeko fitxa bat bete behar da)

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.net 

Usurbilgo Udala

EUSKAL HERRIA

## II. Eranskina

| DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO ORRIA<br>EKINTZEI BURUZKO FITXAK | 2016 |
|---|---|

| **EKINTZAREN IZENA** | Taldea: |
|---|---|
| **EKINTZARI BURUZKO DATU OROKORRAK** | |
| Helburua:<br><br>Azalpen laburra:<br><br>Noiz egin da:<br><br>Non egin da:<br><br>Nori dago zuzendua:<br><br>Ekintza irekia al da?<br><br>Gutxi gorabeherako hartzaile kopurua<br><br>Antolaketan zenbat lagunek parte hartuduzue? (emakumezkoen eta gizonezkoen kopuruak bereiziz):<br><br>Bakarrik edo beste talde batekin elkarlanean egin da ekintza? Norekin?<br><br>Zein hizkuntzatan egin da ekintza?<br><br>Ekintzaren inguruan zerbait (publizitatea, eskuorria...) argitaratu al duzue? | |





EK\CV GAO-I-2016-00692

Usurbilgo Udala

EUSKAL HERRIA

| EKINTZA HONETARAKO GASTUA (Kontzeptuka zehaztu) | | IZANDAKO DIRU-SARRERAK | |
|---|---|---|---|
| | | - Erakunde publiko edo pribatuetatik: (Adierazi diru-laguntza bakoitza zein ekintzetarako eman den.)<br><br>- Matrikula eta sarreretatik:<br><br>- Bestelakoak: | |
| **GASTUAK GUZTIRA** | | **DIRU-SARRERAK, GUZTIRA** | |
| **UDALARI EKINTZA HONETARAKO ESKATZEN DIOGUN DIRU-LAGUNTZA:** | | | |
| **Oharrak:** | | | |

Usurbilen, 2016ko ___________ren ____an

Sinadura

Usurbilgo Udala

EUSKAL HERRIA

### III. Eranskina

# EGIAZTAGIRIA

Honen bidez adierazten dut _________________________ Elkartea Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan eta Gizarte Ogasuneko betebeharretan egunera dagoela.

Eta hala jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.

Usurbilen, 2016ko ___________ren __an.

Sinadura

Usurbilgo Udala

EUSKAL HERRIA

## IV. Eranskina

# EGIAZTAGIRIA

Honen bidez adierazten dut ___________________________ Elkarteak kideak aukeratzerakoan edo jardunean ez duela inor deusengatik baztertzen, eta bereziki ez duela inor sexuarengatik baztertzen.

Eta hala jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.

Usurbilen, 2016ko ____________ren __an.

Sinadura

Usurbilgo Udala

EUSKAL HERRIA

# V. Eranskina

Emakume eta gizonen berdintasunerako legediaren egiaztagiria

## EGIAZTAGIRIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.1 eta 24.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera, adierazten dut ________________ elkarteak:

- Ez duela urratzen emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa honakoei dagokionez: helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua eta/edo estatutuetan.

- Ez duela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ondoriozko debekurik.

- Ez duela sexu-bereizkeria egiteagatik administrazio-zehapenik eta/edo zehapen penalik.

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren18ko 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betekizunak betetzen direla.

- Onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan ez duela sexuagatiko bereizkeria egiten.

Eta hala jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.

Honen bidez adierazten dut ______________________________ Elkartea

Usurbilen, **2016**ko __________ren __an



EK\CV GAO-I-2016-00692

Usurbilgo Udala

EUSKAL HERRIA

# DOCUMENTACION PRESENTADA PARA SOLICITAR LA SUBVENCION

La documentación que aportamos es la siguiente (marcar con una cruz):

☐ Datos del grupo o del solicitante (Anexo I)

☐ Fichas de actividades debidamente completadas, con certificados originales o copias compulsadas de gastos e ingresos (Anexo II)

☐ Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de seguridad social (Anexo III)

☐ Documento que justifique la no discriminación por parte de la asociación (Anexo IV).

☐ Certificado de cumplimentar la normativa correspondiente a la igualdad entre mujeres y hombres. (Anexo V)

☐ Certificados originales o copias compulsadas de otras subvenciones concedidas.

☐ 2 ejemplares de los estudios, programas, publicaciones y carteles.

☐ Fotografías sobre la actividad realizada.

☐ Fotocopia del Código de Identificación Fiscal

☐ Fotocopia del Documento Nacional de Identidad

☐ Otros (concretar):

En Usurbil, a ____ de ____________ de 2016

Firma

Usurbilgo Udala

EUSKAL HERRIA

# Anexo I

| IMPRESO DE SOLICITUD DE SUBVENCION DATOS DEL GRUPO o DEL SOLICITANTE | 2016 |
|---|---|

**A) DATOS DE LA ASOCIACION**

| | | |
|---|---|---|
| Entidad solicitante: | | Nº de registro: |
| Domicilio social: | | |
| Población: | | CP: |
| Teléfono: | E-mail: | NIF: |
| Fax: | | |

**B) DATOS DE LA PERSONA RESPONSABLE**

| | | |
|---|---|---|
| Nombre y apellidos: | | Cargo: |
| Dirección: | | CP: |
| Teléfono: | Fax: | E-mail: |

**B) DATOS DE LA CUENTA CORRIENTE**

| | |
|---|---|
| Entidad bancaria: | Sucursal: |
| Dirección de la surcusal: | Población: |
| Nª de c/c (20 dígitos): | |

**C) DATOS DE LA ASOCIACIÓN**

| | |
|---|---|
| Cuando se creó la asociación | |
| Relación de actividades previstas por la asociación: | |
| Número actual de participantes: | |
| ¿Organizáis alguna actividad junto a otras asociaciones del municipio? | ¿Cuál? |

**D) EKINTZAK**

Descripción de la actividad realizada desde el año 2015 hasta la publicación de la vigente convocatoria (se deberá completar una ficha para cada actividad)

**E) ESTADO DE CUENTAS**

En Usurbil, a _____ de _____________ de 2016



EK\CV GAO-I-2016-00692

Usurbilgo Udala

EUSKAL HERRIA

## Anexo II

| IMPRESO PARA LA SOLICITUD DE SUBVENCION<br>FICHAS DE ACTIVIDADES | 2016 |
|---|---|

| **DENOMINACIÓN DE LA ACTIVIDAD** | Grupo: |
|---|---|
| **DATOS GENERALES DEL PROYECTO** | |
| Objeto:<br><br>Descripción breve:<br><br>¿Cuándo se ha realizado?<br><br>¿Dónde se ha realizado?<br><br>¿A quién está dirigida?<br><br>¿Es una actividad de carácter público?<br><br>Número estimado de participantes:<br><br>¿Cuántas personas han participado en la organización? (Señalar la cantidad de mujeres y hombres)<br><br>¿La actividad se ha realizado en solitario, o en colaboración con otros? ¿Con quién?<br><br>¿Qué idioma se ha empleado para la actividad?<br><br>¿Se ha generado algún tipo de publicación (publicidad, folletos...) en torno a la actividad? | |

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.net



EK\CV GAO-I-2016-00692

Usurbilgo Udala

EUSKAL HERRIA

| GASTO PARA ESTA ACTIVIDAD<br>(Detallar por conceptos) | | INGRESOS OBTENIDOS | |
|---|---|---|---|
| | | - Entidades públicas o privadas (Se indicará cada actividad subvencionada):<br><br>- Matrículas y/o ingresos:<br><br>- Varios: | |
| TOTAL GASTOS | | TOTAL INGRESOS | |
| CANTIDAD SOLICITADA AL AYUNTAMIENTO PARA ESTA ACTIVIDAD: | | | |
| Observaciones: | | | |

En Usurbil, a ____ de ____________ de 2016

Firma

## Anexo III

# CERTIFICADO

Mediante la presente, declaro que la Asociación ___________________________ está al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y en el cumplimiento de sus obligaciones con la Seguridad Social.

Para que quede constancia de lo expuesto, suscribo el presente documento.

En Usurbil, a ____ de _____________ de 2015

Firma

Usurbilgo Udala

EUSKAL HERRIA

## Anexo IV

# CERTIFICADO

Mediante la presente, declaro que la Asociación ________________________________ en el proceso de admisión o funcionamiento de sus miembros no discrimina a nadie por razón de sexo.

Para que quede constancia de lo expuesto, suscribo el presente documento.

En Usurbil, a ____ de ____________ de 2015

Firma



EK\CV GAO-I-2016-00692

Usurbilgo Udala

EUSKAL HERRIA

**Anexo v**

# CERTIFICADO

De conformidad con los artículos 3.1 y 24.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, declaro que la Asociación ____________:

- No infringe el principio de igualdad de mujeres y hombres en lo referente a: objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización y /o estatutos.

- No infringe las prohibiciones derivadas de la Ley 18/4/2005 de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

- No ha sido sancionada administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo.

- Que se cumplen los requisitos establecidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en la Ley Orgánica 3/2007 de 22 de marzo para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres.

- Que en el proceso de admisión o funcionamiento de sus miembros no discrimina a nadie por razón de sexo.

**Para que quede constancia de lo expuesto, suscribo el presente documento.**

En Usurbil, a_______de______, de 2016

**Firma**